

INGURUMENA



**Harritzekoa da!
Nik ere odola kutsatuta daukat!**

Halaxe da. Lancaster-eko unibertsitateak egindako analisiaren arabera, Ingurumen Komisario Margot Wallstrom-en odolean ere 28 positibo agertu dira: PBDE, PCB eta DDT. Sustantzia kimiko horiek arriskutsuak izan daitezke.

Ze ondorio ekar dezake halako kutsadurak?
Begiratu “La sangre contaminada de la comisaria de Medio Ambiente” artikuluan (www.gara.net 2003ko azaroak 9).



Guk ere ikertu dezakegu geure ingurumenaren zer-nolakoak ezagutzeko.

Halaxe egiten dute, adibidez, Durangoko institutuan, Ingurumen Kimika goi-mailako zikloan; ikasleek, ikasturteko lanaren barruan, aire, lur eta ur-analisiak egiten dituzte.

Ura aztertzeko, lehenengo eta behin azterketa gunea zehaztu eta mugatzen dute. Gero, laginak hartzen dituzte, aspektu batzuk -temperatura, Pha...- neurtzeko, eta beste batzuk gerago laborategian analizatzeko.

Euskal Herrian europar agentzia bat dago: Bilbon dauka egoitza. Zein da? Zertaz arduratzen da?

Agentzia horrek substantzia arriskugarrien kontrako kanpaina bat egin du, 2003. urtean. Berrikitan egindako ikerketaren arabera, Europar Batasunean lan egiten duten pertsonetatik %22k bapore toxikoen artean lan egin edo egiten du, bere lanaldiaren laurdenean. Gainera, %16k substantzia arriskutsuak erabili behar ditu eguneroko jardueran. Halako substantzietan lan egitea kaltegarria izan daiteke osasunarentzat: azal gaixotasunak, nerbio eta immunologia-sistema hondatzea, minbizia, eta abar.

Zu sindikatu batekoa bazina,
zer egingo zenuke?

Gobernukoa bazina,
zer aginduko zenuke?

Ekologista bazina,
zer proposatuko zenuke?

Ugazaba bazina,
zelan jokatuko zenuke?

Langilea bazina,
zer pentsatuko zenuke?

Zure proposamena